



Laguntza mediko
espezializatuko konsultak eta
probak egiteko anezka erako
garraio-zerbitzu kolektibo eta
egokituari



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

LAGUNTZA MEDIKO ESPEZIALIZATUKO
KONTSULTAK ETA PROBAK EGITEKO
ANEZKA ERAKO GARRAIO-ZERBITZU
KOLEKTIBO ETA EGOKITUARI BURUZKO
TXOSTENA, FORU PARLAMENTARI
ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE
ANDREAK ESKATUA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

Izenburua: **Laguntza mediko espezializatuko kontsultak eta probak egiteko anezka erako garraio.zerbitzu kolektibo eta egokituari.**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2009ko, Azaroa

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege gordailua:

%100 birziklatua, erabat klororik gabea eta bizi ziklo osoan ingurumen inpaktu gutxikoa den paperean inprimatua, ondoko ziurtagiriak dituena: Blauer Engel, Nordic Swan eta Europako Batasuneko etiketa ekologikoa.



0

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

I. SARRERA	11
II. AURREKARIAK	15
III. OSASUN-GARRAIOAREN PRESTAZIOA OSASUN ZERBITZUEN ZORROAN	21
IV. ANEZKA ERAKO GARRAIO-ZERBITZU KOLEKTIBOKO ZERBITZUAREN AZTERKETA, NAFARROAKO OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN ARDATZ DIREN BERDINTASUNAREN ETA EKITATEAREN PRINTZPIOEN ESPARRUAN	27
1. Berdintasun eta ekitate printzipioei buruzko ohar batzuk, haiek osasun prestazio publikoei aplikatzeari dagokionez	27
2. Anezka erako garraio-zerbitzu kolektiboaren azterketa, osasunaren arloko berdintasun eta ekitate printzipioen argitara	32
V. TXOSTENAREN ZIRRIBORROARI OSASUN DEPARTAMENTUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	39
1. Alegazioak	39
2. Alegazioei buruzko gogoetak	40
VI. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENA	45

1

SARRERA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

1. SARRERA.

2009ko urriaren 5eko idazki baten bitartez –erakunde honetan urriaren 16an aurkeztu zen–, foru parlamentari Asunción Fernández de Garaialde andreak, Nafarroa Bai parlamentu-taldearen izenean, eskatu zuen erakunde honek azter zezan “Laguntza mediko espezializatuko kontsultak eta probak egiteko anezka erako garraio-zerbitzu kolektibo eta egokituari buruzko proiektua”, eta balora dezan ea ekitatiboa den nafarrek osasun publikoaren laguntza erdiesteari begira, edo, bestela, bereizkeria eta desberdintasunak sortzen ote dituen nafarren artean, bizi diren eskualdearen arabera.

11

Eskari horri erantzuteko, txosten hau egin da, non modu sistematikoan deskribatzen diren, lehenbizi, aztergai dugun garraio-zerbitzua sortzea eragin duten aurrekariak; gero, behin zehaztu ondoren osasun-garraioaren edukia, legedi indardunaren arabera, Osasun Sistema Nazionaleko prestazio komun bat dela, aztertzen dugu, zerbitzu horrek Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren buruan dauden berdintasun eta ekitate printzipioetan zer eragin duen. Daukan eragina ikusita, txostenaren amaieran ondorio eta proposamen batzuk ageri dira.



2

AURREKARIAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

2. AURREKARIAK.

Laguntza mediko espezializatuko probak eta kontsultak egiteko anezka erako garraio-zerbitzu kolektibo eta egokitua heldu da talde sozialistak aurkeztutako mozio batetik, hain zuzen ere Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2008ko ekainaren 10ean onetsitako mozio bat. Aurkeztutako eta onetsitako mozio horri jarraituz, zerbitzuak doako garraio egokitua eskuratzen die beraiena ez den beste osasun barruti batera beraien barrutikoa ez den ospitaleren batean osasun laguntza jasotzera joan behar izaten diren pertsoneri, hain zuzen ere dagokien barrutiko ospitalean behar duen zerbitzu espezializatua ez dagoelako. Zehazki, mozioaren xede den proiektuak zerbitzu horren hartzaile gisa definitzen ditu Erriberatik eta Lizarrako eskualdetik Iruñera laguntza espezializatuko probak egitera joan behar duten pertsonak, eta garraio-zerbitzu berriaren premia berdintasun eta ekitate printzipioetan oinarritzen du.

15

Onetsi ondoren, erabakia argitaratu zen Nafarroako Parlamentuko Aldizkariko 2008ko ekainaren 24ko 59. zenbakian. Erabakian, izan ere, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ospitaleen arteko garraio sistema doako eta egokitua antola dezan, Iruñeko

ospitale batean tratamendu medikoa edo kontsulta duten gaixo guztiak, bertara joan ahal izan daitezten ospitale hori haien erreferentzia-ospitalea ez bada ere, horrek inolako kostu gehigarrikeragin gabe.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak, 2009ko ekainaren 16an, hitzarmen bat sinatu zuen Gurutze Gorriarekin, Lizarrako eta Tuterako ospitaleei atxikitako gaixoen ospitaleen arteko garraioaz arduratzeko, Iruñeko ospitaleetara –beste osasun barruti batera– laguntza hartzera joan behar dutenean.

Halere, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak zalantzan jartzen du garraio-zerbitzu horren ekitatea, zeren eta osasun barrutia bera izan nahiz ez izan, gertatzen dena baita Pirinio aldean, Irunberrin, Beran, Lesakan edota abarretan bizi direnek batetik bestera joateko arazo berak edo handiagoak dituztela Tuterako edo Lizarrako egoiliarrek baino, eta garraio-bidea bilatu behar izaten dutela Iruñeko ospitaleetara etortzeko, nahiz eta osasun barruti berean egon. Azken batean, Nafarroa Baik uste du zerbitzuaren sakoneko aldean nafarren arteko tratu-desberdintasuna ageri dela, alegia, bizi diren eskualdearen arabera tratua, eta horrek berdintasun eta ekitate printzipioak urratzen dituela.

Jarrera kritiko hori dela eta, 2009ko maiatzaren 6an, Nafarroako Parlamentuko Mahaian mozio bat aurkeztu zuen, Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiazeko beste proposamen bat egin zezan, non zerbitzua definitzeko elementua ez den osasun barrutia eta erreferentziako ospitalea izanen, baizik eta beste elementu batzuk; hala nola, etxetik ospitaleraino zenbat kilometro dauden, irizpide sozio-ekonomiko familiarra, errentako mailak eta abar. Osoko Bilkurak, 2009ko ekainaren 25ean, ez zuen mozio hori onetsi.



3

OSASUN-GARRAIOAREN
PRESTAZIOA
OSASUN ZERBITZUEN
ZORROAN

3. OSASUN-GARRAIOAREN PRESTAZIOA OSASUN ZERBITZUEN ZORROAN.

Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zorroa onetsi zuen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuko VIII. eranskinari jarraituz, osasun-garraioaren prestazioak ondoren deskribatzen diren ezaugarri komunak dauzka.

21

Osasun-garraioak erabilerraza izan behar du ezgaitasuna duten pertsonentzat. Osasun-garraio hori datza gaixoak toki batetik bestera eramatean arrazoi guztiz klinikoengatik, baldin eta gaixo horiek, beren egoerarengatik, garraio bide arrunta erabiltzerik ez badute. Osasun-garraio hori osasun-administrazio eskudunek erregelamendu bidez ezarritako araei jarraituz gauzatuko da.

Prestazio horren finantziatorako eskubidea izanen dute pertsona gaixoen edo istripu bat izandakoek, baldin eta Osasun Sistema Nazionalaren osasun laguntza jasotzen badute eta ezintasun fisikoarengatik edo beste arrazoi guztiz kliniko batzuegatik garraio arrunta erabiltzerik ez badute osasun etxe batera joateko edo beren etxera joateko, kasuko osasun laguntza jaso ondoren, betiere premia hori justifikatzen duten

arrazoiek beren horretan jarraituz gero. Beste pertsona batek lagunduta joan ahalko dira, gaixoaren adinarengatik edo egoera klinikoarengatik halakorik behar denean.

Prestazioak jasotzen ditu bai laguntzarik gabeko osasun-garraioa –garraio mota hori egokia da ibilbidean laguntza tekniko-sanitarioa behar ez duten gaixoa edo istripua izandakoak garraiatzeko–, bai lagundutako osasun-garraioa –ibilbidean laguntza tekniko-sanitarioa behar duten gaixoentzat eta istripua izandakoentzat.

22

Laguntzarik gabeko osasun-garraioa nahiz lagundutako osasun-garraioa autonomia erkidego bakoitzeko arauen arabera eskatu beharko du gaixoaren leku-aldatzea arrazoituko duen kasuko laguntzaren sendagile arduradunak, betiere arrazoi kliniko soilei erreparatuta eta gaixoaren osasunarentzako inongo arriskurik izan gabe.

Nafarroako Foru Komunitateak, otsailaren 10eko 29/1997 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako osasun-garraioa arautu zuen. Alabaina, erregelamendu horrek osasun-garraioeko entitate, enpresa eta ibilgailuek bete beharreko baldintzak eta haien araubidea finkatu besterik ez zuen egin, garraioa osasun prestazio gisa arautu gabe.

Horrenbestez, osasun-garraioak, Osasun Sistema Nazionaleko osasun prestazio komun gisa –horrenbestez, Nafarroan bizi diren pertsona guztiek hartarako eskubide subjektiboa dute–, soilik pertsona ezgaitu, gaixo edo istripua izandakoak garraiatzea jasotzen du; hain zuzen ere, , kasuko osasun laguntza jaso ondoren, beren ezintasun fiskoarengatik nahiz beste arrazoi guztiz kliniko batzuenengatik osasun etxe batera edo beren etxera joateko garraio arrunta erabiltzerik ez duten pertsonak. Programatutako garraioetan, bai egun baterako (kontsultak, presakoak ez diren ospitaleratzeak eta abar), bai tratamendu luze bat jasotzeko (errehabilitazioa, kimioterapia eta abar), eskaria txosten mediko baten bidez egiten da, garraioa erabiltzeko premia justifikatuko duten arrazoiak emanez. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Prestazio eta Itun Zerbitzuak baimena eman beharko du. Larrialdiko leku-aldatzeetarako garraioa 112 telefonora deituta egiten da.

Osasun-garraioaren prestazioa osatzen duten elementuen deskribapena ikusita, argi dago ezin dela esan “anezka erako garraio zerbitzu kolektiboa”, zeina txosten honen helburua baita, Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunen Zorroak arauturiko osasun-garraioaren prestazio mota bat dela. Egiazki, ikuspuntu teknikitik, ez da “osasun-garraioa”

prestazio bat. Doako garraioko prestazio bat besterik ez da. Eta, horrenbestez, Nafarroan ezarritako prestazio osagarri bat da, Tuterako eta Lizarrako osasun barrutietan bizi diren pertsonen kolektibo jakin batentzat, eta ez Iruñeko osasun barrutian bizi direnentzat.



4

ANEZKA ERAKO GARRAIO ZERBITZU
KOLEKTIBOKO ZERBITZUAREN
AZTERKETA, NAFARROAKO
OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN
ARDATZ DIREN BERDINTASUNAREN
ETA EKITATEAREN PRINTZIOEN
ESPARRUAN



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

4. ANEZKA ERAKO GARRAIO-ZERBITZU KOLEKTIBOKO ZERBITZUAREN AZTERKETA, NAFARROAKO OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN ARDATZ DIREN BERDINTASUNAREN ETA EKITATEAREN PRINTZIOEN ESPARRUAN.

27

1. Berdintasun eta ekitate printzipioei buruzko ohar batzuk, haiek osasun prestazio publikoei aplikatzeari dagokionez.

Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeko 23. artikuluko ezarri zuen Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaile guztiek Osasun Zerbitzu Komunen Zorroan ezarritako osasun prestazioak eskuratu ahalko dituztela berdintasun efektiboko baldintzetan.

Bestalde, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 4. artikuluko c) letrak ezartzen du osasun-jarduerak eta -zerbitzuak ekitate printzipioari doituko zaizkiola laguntza-mailei dagokienez eta berdintasun printzipioari herritar guztiek osasun sistema erabiltzeko baldintzei dagokienez.

Horrenbestez, Nafarroako osasun sistema publikoaren buruan eta ardatzean berdintasun efektiboaren printzipioa egonen da, osasun laguntza lortzeko baldintzei dagokienez, eta ekitate printzipioa laguntza-mailei dagokienez. Horrek guztiak berarekin dakar guztientzako laguntzan antzeko kalitatea eskaintzea. Osasunari buruzko Foru Legeko 4. artikuluan aipatutako ekitate printzipioa, aitzinsolasean ezarritakoaren arabera, berdintasunerako berme bat izanen da osasun sistema erabiltzeko baldintzei dagokienez.

Berdintasuna, gure antolamendu juridikoaren goreneko balio gisa, ez da soilik Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan islatutako berdintasun formala; izan ere, Espainiako Konstituzioko 9.2 artikuluan jasotako berdintasun substantibo edo materialean ere agertzen da; hain zuzen ere artikulua horren arabera, botere publikoek behar diren baldintzak sustatu beharko dituzte herritarren berdintasuna erreala eta efektiboa izan dadin.

Berdintasun printzipioaren irismen konstituzionala dela eta, Konstituzio Auzitegiak, epai ugaritan, doktrina bat landu du. Bada, doktrina horren funtsezko ezaugarriak, hemen interesatzen zaigunerako, urtarrilaren 20ko 10/2005 epaian laburbilduta datoz: a) berdintasunaren printzipioak exijitzen

du egitatezko suposamendu berdinetan ondorio juridiko berdinak aplikatuko direla, eta egitatezko bi suposamendu berdintzat joko dira haiek desberdintzeko elementuen erabiltzea edo sartzea modu arbitrarioan egiten denean edo arrazoizko oinarririk ez duenean. b) Berdintasun printzipioak ez ditu tratu desberdintasun guztiak debekatzen; soilik debekatzen ditu irizpide objektibo eta behar adina arrazoitutakoetan oinarrituta ez egoteagatik artifiziosoak edo justifikaziorik gabeak gertatzen direnak, betiere orokorrean onartzen diren irizpide edo juizioen arabera. c) Desberdintzea konstituzioaren ikuspuntutik zilegi izan dadin, ez da nahikoa harekin lortu nahi den xedea zilegi izatearekin, izan ere, ezinbestekoa da, gainera, bereizketa horretatik heldutako ondorio juridikoak ere egokiak eta xede horretarako proportzionatuak izatea, halako moduan non hartutako neurriaren, lortzen den emaitzaren eta legegileak bilatzen duen helburuaren arteko erlazioak proportzionaltasunaren epaia gaindituko duen, emaitza bereziki kaltegarriak edo neurrigabeak saihestuta. Azken batean, legearen aurreko berdintasunaren printzipioak eskatzen du tratuko desberdintasuna objektiboki justifikatuta egotea eta, gainera, hartutako neurriaren, lortutako emaitzaren eta bilatzen zen helburuaren arteko erlazioak proportzionaltasunaren epaia gainditzea, eta legearen aplikazioari dagokionez, eskatzen du

egiazki modu berean aplikatu dakiela egoera berean dauden guztiei; eta, bestetik, aplikatzaileak ezin izanen du desberdintasunik egin pertsonen nahiz inguruabarren arabera, arauan bertan agertzen direnez aparte.

Ekitatea, berriz, printzipio juridiko lausoago bat da. Gure konstituzioak ez du hura jasotzen, eta Kode Zibileko 3.2 artikulua xede hermeneutiko batekin jasotzen du, hauxe ezartzen baitu: “Ekitatea balioestekoa izango da arauak aplikatzean”. Espainieraren Errege Akademiaren definizioaren arabera, ekitatea justizia naturala da, lege positiboaren letrari kontrajarria. Nolanahi ere, zehaztu beharra dago ekitatea eta berdintasuna elkarrekin hertsiki erlazionatuta dauden baina desberdinak diren zuzenbideko bi printzipio orokor direla. Ekitateak printzipio etiko edo justiziazko bat eranstean dio berdintasunari.

Ekitatearen printzipio juridikoa zerbitzuak eta prestazio sozialak arautzeko lege gehienetan sartu da, eta berariaz sartu da bultzagarria, akuilua izan dadin zerbitzu horiek ematen dituzten administrazioentzat, hain zuzen ere gizarte zuzenago eta ekitatiboago bat eraikitzen aurrera egiteko lortu behar diren helburuak planteatzeko, behar diren programak eta jarduerak garatzearen bitartez.

Osasuna gizakion bizitzako baldintza garrantzitsuenetako bat da eta, horrenbestez, botere publikoek lehenasunezko arreta eskaintzen diote; hori dela eta, izaera unibertsalekoa eta doakoa duen osasun sistema bat mantentzen dute. Eta osasuna gauzatzearen eta banatzearen arloan, hau da, herritarrentzat osasun maila ahal den handienak lortzearen arloan, haien artean inongo bereizkeriarik egin gabe, ekitatea gure antolamendu juridikoan sartu da, justizia sozialaren kontzeptu zabal bat osatuz. Izan ere, osasunari aplikatutako ekitatearen printzipioak eskatzen du osasun baliabideak populazio-taldeen artean halako moduan banatzea non osasun egoeren artean desberdintasunak ahal den guztian gutxituko diren, guztientzat antzeko estandarrak bermatuz, bai eta osasun laguntzan kalitate bera bermatuz, norberaren premiaren arabera.

Azken batean, parametro horiei jarraituz, osasunaren arloko prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko berdintasun efektiboak antolaketa juridiko egokia eta nahikoa eskatzen du, eta, halaber, osasun zerbitzuen antolaketa eta hornikuntza efizientea, halako suertez non bermatuko baita prestazio eta zerbitzu horiek erabiltzeko aukera fisiko hutsaz gainera, haiek behar diren kalitate baldintzetan erabiltzeko bidea. Horrela, ekitatearen printzipioa ere beteko da.

2. Anezka erako garraio-zerbitzu kolektiboaren azterketa, osasunaren arloko berdintasun eta ekitate printzipioen argitara.

Gorago azaldu dugun berdintasun formalaren kontzeptu juridikoari erreparatuta, esan daiteke ezin dela atzeman printzipio hori urratu denik hemen aztergai dugun garraio-zerbitzua ezartzerakoan, zeren eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeak salatzen duen tratu-desberdintasunaren oinarria, izateko arrazoia, aurretik dagoen egoera desberdin bat baita; hau da, Nafarroako osasun sistemako erabiltzaileak osasun barruti desberdinetakoak izatea eta geografikoki beste osasun barruti batera edo dagokienaz beste ospitale batera joan behar izatea zenbait kasutan behar den osasun laguntza hartu ahal izateko. Egoera desberdin horri, zama handiagokoa izateagatik, erantzun bat ematen zaio, garraio-zerbitzuaren bitartez. Eta erantzun horretatik heldu da, ezinbestez, salatutako desberdintasuna. Baina ezin da jo desberdintzeko elementua –beste osasun barruti edo beste ospitale batera joan behar izatea– arbitrariotzat edo funtsezko arrazoirik gabekotzat. Izan ere, doako garraioa ematean oinarritutako tratu desberdintasunak behar adinako justifikazio objektiboa dauka, zeren eta Tuterako eta Lizarrako ospitaleek ez baitituzte Iruñeko ospitaleek

dauzkaten zerbitzu berak. Horrek, izan ere, zama gehigarri bat dakarkie ospitale haien erabiltzaileei, alegia, berea ez den beste ospitale batera joan behar izatea laguntza jasotzera; eta Iruñeko ospitaleei zuzenean atxikitako erabiltzaileek ez dute zama hori, zeren eta espezialitate guztiak eskura baitituzte. Laburbilduz, Espainiako Konstituzioko 14. artikulutik ondorioztatzen diren interpretazio-parametroei erreparatuta, ez dago bereizketa artifizioso edo arbitrarioik, zeren eta irizpide objektiboetan oinarritzen baita, eta proportzionatua baita bilatzen duen helbururako.

Hala eta guztiz ere, berdintasun printzipioa alderdi materialetik edo substantibotik baloratuz gero, hau da, justizia materialaren ikuspuntutik, zeina, dakigun bezala, hertsiki lotuta baitago ekitate printzipioarekin, arestian arrazoitutakoari zenbait xehetasun erantsi beharko dizkiogu. Izan ere, ezin da alde batera utzi edo mespretxatu Pirinio aldeko ibarretako, Altsasuko, Irunberriko, Berako eta abarretako bizilagunek, agian, Tuterako edo Lizarrak bizilagunek baino zailtasun handiagoak izan ditzaketela bai batetik bestera joateari dagokionez, bai kostuari dagokionez, Iruñeko ospitaleetara joateko, laguntza espezializatua hartu ahal izateko. Alabaina, distantzia fisiko handiagoa eta mugitzeko aukera txikiagoak izanda ere, beren barrutitik

geografikoki ez ateratzearen arrazoi formal hutsarengatik, Iruñeko ospitaleetaraino garraioa finantzatzeko zama daukate beren gain, hain zuzen ere Tuterak eta Lizarrako gaixoei berritik kendu zaien zama bera.

Har ditzagun adibide batzuk: Luzaide, Izaba, Urdazubi, Zugarramurdi eta abar, Nafarroako periferian daude, Iruñean dagoen erreferentziako ospitaletik ehun kilometro inguruko distantzian, eta Iruñerainoko errepidearen trazaduran zenbait mendi-portu gainditu behar dira. Argi dago herri horietako herritarrak Iruñerainoko bidaia osoa ordaindu beharko duela, Iruñeko ospitaleak laguntza espezializatuko ospitale gisa ezarrita dagoen kasuetan. Lizarrako eta Tuterako ospitaleak erreferentziako ospitaleak diren kasuetan, anezka erako garraio zerbitzuari esker –hain zuzen ere autobiaz edo autobideaz egin beharreko garraioa–, herritarrarentzat inongo kosturik ez dagoen bitartean Iruñeko ospitale espezializatura joateko, Nafarroako iparraldeko udalen edo urrun dauden eremu menditsuen kasuan, herritarrek bidaia luzeagoa egin behar dute, edo, gutxienez ere berdin luzea, tartean portu, desnibel eta bihurtune ugari gaindituta, eta ez du Nafarroako Foru Komunitatearen inongo laguntzarik jasotzen, laguntza partzialik ere ez, eta zama ekonomiko handia jasan behar dute arrazoi geografiko hutsen ondorioz. Ez dirudi egoera hori bat

datorrenik 1978ko Espainiako Konstituzioko 14., 130.2, 138.1 a 139.1 artikuluekin.

Ezin da ahaztu, ezta ere, Lizarrako eta Tuterako osasun barrutietan bizi direnetako batzuek, beren bizitokia erreferentziako ospitaletik urrun egoteagatik, zailtasun berak edo are handiagoak izan ditzaketela beren ospitalera joateko, beren Lizarrako edo Tuterako ospitaletik Iruñera joatearekin alderatuz gero.

35

Zalantzarik gabe, zama horiek neurri batean ekitatearen printzipioa hausten dute, zeren eta, izatez egoera okerragoan baitaude ospitaleetako osasun laguntza jasotzeko, zeren eta, hasteko, ez baitute osasun prestazioa, bere osotasunean, kalitate-maila berarekin jasotzen. Erabiltzaileak beste osasun barruti batera joan behar izateak –zeina izan baita, azken batean, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak onetsitako proiektuan tratu desberdintasuna ezartzeko eta justifikatzeko erabili den ratio bakarra– berdintasun formalaren printzipioa betetzen du, baina ez du guztiz betetzen ekitate printzipioa.

Azken batean, erakunde honek uste du ospitaleetako erabiltzaileentzako doako garraio zerbitzua ezartzekotan

–zerbitzu hori eta osasun garraioaren zerbitzua desberdinak dira, betiere, ikusi dugun bezala–, irizpide geografikoei erreparatu behar zaiela, hau da, kasuko ospitaleetara dauden distantziei, ez irizpide formalei –osasun barrutien mugaketa normatiboaren irizpidea, adibidez–. Soilik ikuspuntu horretatik eskaini ahalko da ospitaleetako erabiltzaileentzako zerbitzu berdina eta ekitatiboa, bereizkeriaren aztarna guztiak saihestuta.



5

TXOSTENAREN ZIRRIBORROARI
OSASUN DEPARTAMENTUAK
AUKEZTUTAKO ALEGAZIOAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

5. TXOSTENAREN ZIRRIBORROARI OSASUN DEPARTAMENTUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

1. Alegazioak.

Osasun kontseilariak, erakunde honek eginiko eskariari erantzunez –hain zuzen ere bere iritzia eman zezan eta behar zituen iradokizunak aurkez zitzan txosten honen zirriborroari buruz–, 2009ko azaroaren 12an txostena helarazi zigun. Hartan, txostenaren aipatu zirriborroa dela-eta duen jarrera finkatzen du.

Osasun-garraioaren prestazioa Osasun Sistema Nazionaleko prestazio komun baten gisara erregulatzen duen araudiaren eta prestazio horren ezaugarrien deskribapenezko azalpen bat eman ondoren, adierazten du, sintesian, anezka erako garraio zerbitzuak, osasun prestazio bat ez denez, ez dituela urratzen ekitate eta berdintasun printzipioak, eta Osasun Departamentuaren helburu bakarra dela Nafarroako Parlamentuaren erabakia zorrotz bete eta Nafarroako osasun sareko ospitale publikoak elkarrekin lotu. Horrek, bere iritziz, ez du inongo ekitate printzipiorik urratzen. Gehitzen du bere

planteamendua ez dela ospitaleen arteko garraioa Osasun Zerbitzuen Zorroan sartzea, zeren eta ez horrek bailituzke beteko osasun zerbitzuen zorroa arautzen duten arauetan ezarritako baldintzak.

Osasun kontseilariak, idazkiari amaiera emateko, baieztatzen du ez duela ospitale publikoetara joateko garraio arrunteko sistema bat antolatu nahi, zeren eta uste baitu jarduera hori Osasun Departamentuaren eskumenetatik kanpo dagoela.

2. Alegazioei buruzko gogoetak.

Erakunde hau ados dago guztiz Osasun kontseilariarekin esaten duenean ezarri den anezka erako garraio zerbitzu kolektiboa ezin dela “osasun prestaziotzat” hartu, osasun legedietan hari buruz egiten den araupetzeari jarraituz –zehazki, Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunak Zorroa erregulatzen duten arauak jarraituz–. Geuk ere horixe adierazi dugu txosten honetan. Gogoeta hori bera egin daiteke, noski, Nafarroako Arartekoak txosten honen amaieran proposatzen duen garraio-zerbitzuari buruz.

Hala eta guztiz ere, erakunde hau ez dago ados honako irizpidearekin: aztergai duguna hertsiki “osasun prestazio” bat –zehazkiago, “osasun garraioaren prestazio” bat– ez izatearen arrazoi hutsarengatik, zerbitzu horrek ez ditu berdintasun eta ekitate printzipioak urratzen. Osasun kontseilariaren idazkiaren testuingurutik ondorioztatu ahal da ekitate eta berdintasun printzipioak soilik korapila eta aplikatu daitezkeela “osasun prestazioetan”, eta printzipio horiek ez dutela inolako birtualtasunik beste prestazio eta zerbitzu batzuei buruz ari garenean, oraingoan bezala.

Berdintasun eta ekitate printzipioak, berriz, bokazio unibertsalista duten printzipio juridikoak dira eta, horregatik, prestazio-izaerako zerbitzu publiko guztietan aplikatu ahal dira eta, horrenbestez, osasun publikoaren arloari dagokionez, osasun zerbitzu batek kudeatzen duen osasun sistemako gaixo eta erabiltzaileen onurarako egiten duen jarduera orotan, jarduera hori hertsiki “osasun prestazioa” izan nahiz ez izan.

Txosten honen xedekoa den ospitaleetarako doako garraioa ezartzea aukerakoa da, zeren eta ez da arauz derrigor aplikatu beharreko osasun prestazio bat. Baina garraio hori ezartzen bada, osasun prestazioa izan nahiz ez izan,

printzipio horiek egoki kalibratu eta haztatu beharko dira, hain zuzen ere printzipioak berak kalteturik suerta ez daitezzen. Eta, erakunde honen iritziz, zerbitzu hori ezartzeak ekitate printzipioa urratzen du, gaixoen garraio-premiak ez dituelako modu berean estaltzen, bereziki, ospitaleetara iristeko zailtasun handienak eduki, eta, horrenbestez, premia handiagoak eta berariazkoak dauzkaten gaixoen kasuan.



6

IRADOKIZUNA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENA.

Laguntza mediko espezializatuko kontsultak eta probak egiteko anezka erako garraio zerbitzu kolektibo eta egokitua, berriki Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ezarritakoa 2008ko ekainaren 24an Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia betetzeko, ikuspuntu formalek berdintasun printzipioaren arabera da, baina, halere, ez dator guztiz bat ekitate printzipioarekin. Horrenbestez, erakunde honen irizpidearen arabera, gomendagarria litzateke zerbitzu horretan hobekuntzak egitea, Nafarroan bizi diren pertsonentzako doako garraioa ematerakoan ekitate printzipioa behar adina bermatze aldera.

45

Berdintasun efektiboaren eta ekitatearen printzipioen aplikazio osoak, Nafarroan bizi diren herritarrak kasuko ospitaleetara joan ahal izateari dagokionez, eskatuko luke erreparatzea ez herritarrak bizi diren osasun barrutiari, baizik eta herritar horien bizitokitik ospitalera dagoen distantziari. Kontua litzateke bizitokitik ospitalera distantzia jakin bat finkatzea (kilometrotan emana), halako moduan non finkaturiko distantziari dagokion zirkulu geografikoaren barruan bizi diren erabiltzaileek garraio-gastuak beren kargura ordaindu beharko dituzten, eta zirkulu horretatik

harantzago daudenek, berriz, doako garraio sistema edukiko duten edo, kasua bada, sortu zaien garraio-gastuak berreskuratzeko sistema bat. Horrela, antzeko estandarrak bermatuko dira guztientzat, zein osasun barrutitan bizi diren edo zein ospitale esleituta duten alde batera utzita, eta, bestalde, osasun laguntzan kalitate bera ere bermatuko da guztientzat. Horrela, erakunde honen irizpidearen arabera, guztizko eraginkortasun erreala emanen zaie ekitatearen eta berdintasun efektiboaren printzipioei.

Egia da proposatzen dugun ereduak berarekin dakarrela herritarren arteko tratu desberdintasun bat, beren bizitokiaren kokapenaren arabera eta ospitaletiko urruntasunaren edo hurbiltasunaren arabera, baina, zalantzarik gabe, objektiboki justifikatutako tratu desberdintasuna izanen litzateke hori eta, gainera, hartutako neurriaren eta lortutako emaitzaren artean proportzioa egonen litzateke. Gainera, konponbide horrek ekitate printzipioa errespetatuko luke, zeren eta ez bailuke emaitza bereziki kaltegarri edo neurrigaberik ekarriko esleituta duten ospitaletik hurbil bizitzeagatik zerbitzuaz baliatzerik ez luketen erabiltzaileekin alderatuta. Azken batean, hain zuzen ere ekitate irizpideak justifikatuko luke tratuko desberdintasuna.

Bukatzeko, adierazi nahi dugu Nafarroako osasun barrutiak birdefinitzea ere lagungarri gerta litekeela erabiltzaileak, kasuan kasu, ospitale-laguntza emanen zaien ospitaleetara garraiatzeko auzia hobeki konpontzeko.

Nafarroako Ararekoa

47

Francisco Javier Enériz Olaechea



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa